



Gizarte ekonomia

Postkapitalismorantz bidea egiten

- **Erreportajea** Gizarte ekonomiaren erradiografia
- **Elkarrizketa** Enekoitz Etxezarreta
- **Esperientziak** Gureak Taldea, Heroslam SAL, Fiare, Ampo S.Coop.

Pertsonak ekonomiaren zutabe direnean

2008ko irailaren 15 hartan, kartoizko kaxa ahuletan atera zituzten langileek euren zametsak eta arrangurak Lehman Brothersetik, kredituan zimendatutako lau hamarkadako eredu neoliberalaren porrota agerian utziz. Postkapitalismoa zer izango den inork ez daki, “herrialde arraro bat” akaso, Josep Fontanak dioen bezala. Baina jende xumeak, ohi moduan, alternatibak bilatu ditu bankuen atzaparretatik ihes egiteko, langabeziaren zulora ez erortzeko.

Gizarte ekonomiaren printzipioetako bat da kapitalari pertsonak eta helburu soziala lehenestea. Langileen parte-hartzea, mozkinen birbanaketa justua, barne demokrazia, autoeraketa, jasangarritasuna... Euskal Herriko ekonomiaren %10 inguru parametro horietan –edo horietako batzuetan– kokatzen da, eta zabalduz doa, gizarte ekonomiaren aukerak anitzak direlako gaur egun, kooperatibismo tradizionaletatik hasi eta proiektu solidarioetaraino.



■ Egilea: Urko Apaolaza Avila

Martxoaren 3an, hedabide gehienak Bilboko Gran Viako dendetako erakusleho zulatuei so zeuden bitartean, edota Christine Lagardek *Global Forum Spain* goi-bilera ekonomikoan botatako pozoi erreformistari ahotsa ematen zioten bitartean, unibertsitate munduko ehunka irakasle eta adituk –horietako gehienak Euskal Herrikoak– sinatutako *Pertsonen zerbitzurako ekonomia baten alde* manifestuak apenas izan zuen oihartzunik.

Beren ustez ekonomiaren erreferentzia ekitatea da; lehiakortasunak ezin du helburu izan, are gutxiago efizientzia ekologikoaren gaintetik egon. Demokrazia eta gardentasuna behar ditu ekonomia osasuntsu eta jasangarri batek; erabaki politikoak ezin dira teknokrataren jantziz moztaratu. “Ezin da, bada, begien bistatik galdu gizartea ondasunez eta zerbitzuez hornitzea dela, berez, jarduera ekonomikoaren betekizuna. Haatik, pertsonak erdigunean jarriko dituen beste ikus-

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.409. zenbakiarekin banatua, 2014ko martxoaren 30ean)



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Ekonomia solidarioarekin zerikusia duten ekimenak (bidezko merkataritza, kooperazioa, nekazaritza ekologikoa...) gizarte ekonomiaren funtzioa zein den birpentsatzeko akuluu izan dira. Sare solidarioetan dabilzan asko jendartea eraldatzeko aktiboki engaiatuta dago.

pegi bat beharrezkoa dela deritzogu, merkatuak eta erakundeak gizartearen zerbitzura jarriko dituen, eta ez alderantziz”.

Sustatzaileen aburuz manifestuak garrantzia dauka sinatzaileak sentsibilitate ideologiko askotakoak direlako eta gai izan direlako oinarritzko puntu batzuk adosteko. Mikel Zurbano ekonomialariak gurean zioen agiriak suntsitu egiten duela austeritatearen kontra alternatibarik ez dagoela dioten mitoa. Alternatibak egon bai baitaude, ikuspegi soziala kontuan hartuta aurrera doazen gizarte ekonomiako esperientzia praktikoa txiki nahiz handiek erakusten duten moduan. Hain justu, adigarria da irakasleen manifestuko ideia gehienak gizarte ekonomiaren errail beretik doazela. Zer da, ordea, gizarte ekonomia?

Pertsona kapitalaren aurretik; mozkinen banaketa justua; barne elkartasuna; jendartearekin, tokiko garapenarekin eta berdintasunarekin konprometua; kohesio soziala; lanpostu duinak; jarduera jasagarria; botere publikoekiko independentzia...

Horiek dira gizarte ekonomiaren funtsezko baloreetako batzuk. Ideia horiek ez dira unibertsitateko bulegoetan ernai ordea. Iraganean, kapitalismoaren krisi anitzi herritar xumeek emandako erantzuna izan da asoziazionismo ekonomikoa, eta historian barrena egindako eboluzioaren emaitza da egun gizarte ekonomiaz dugun ikuskerara.

HISTORIA PIXKA BAT

Charles Dunoyer ekonomialaria 1786an jaio zen Okzitaniako Carennac hirian. Txikitatik ezagutu zituen Frantziako giro iraultzailea eta lehenengo industrializazioaren desmasiak. XIX. mendeko fabrikaren abaroan Frantziaren zabalduko *pauperisme* edo txirotasuna beste begiratu batekin ikusi zuten orduko ekonomista liberalek, gizartearen disfunczio baten ondorio zirela uste zuten. Dunoyerrek 1830ean *Traité d'économie sociale* idatzi zuen eta ekonomiaren parte morala aldarrikatu zuen. Hor kokatzen dute askok ekonomia sozialaren lehenengo teorizazio ahalegina.

Gizarte ekonomian lanean ari diren pertsona kopurua (2010)

	EAE	Nafarroa	Pirinio Atlantikoak
Kooperatibak	56.231	6.700	3.656
Lan-elkartek	9.177	3.007	-
Elkartek	-	-	22.782
Mutuak	-	-	918
Fundazioak	-	-	67
Enplegurako Zentro Bereziak	6.646	1.468	1.454 (2008ko datuak)
Gizarteratze Zentroak	783	593	2.188 (2008ko datuak)
GUZTIRA	72.837	11.408	31.065


Iturria: Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren mugaz gaindiko sarea

Ordurako, aurreneko kooperatibek bidea egina zuten, batez ere Ingalaterran, Industria Iraultzaren aberrian. Manchester ondoko Rochdale herrian, Robert Owen pentsalari sozialistaren ideiek kilikatuta, dozena pare bat ehulek osatutako kontsumo kooperatibak arrakasta handia izan zuen 1840ko hamarkadan; handik mende erdira 12.000 bazkide zituen. Frantzian eta Alemanian ere azkar zabaldu ziren halakoak.

Euskal Herrian, asoziazionismoaren sustraiak denboran oso atzera doaz. Erdi Aroko benefizentzia etxeetara jo dezakegu nahi izanez gero, auzolan primitibora edo Amerikako kolonietako kofradietara, bestela. XIX. mende amaieran Bizkaiko labe garaien ke artean lehenengo kontsumo kooperatibak sortu ziren, ugazabek berek sustatuta. Ondoren etorri ziren Araiako burdin fabrikakoa eta Gipuzkoako beste hainbat mutualitate, kongregazio katoliko itxurarekin. Hala, gizarte ekonomia, jarduera gisa onartua izatera igaro zen, baina modelo kapitalista nagusia zalantzan jarri gabe, orekatzeko osagai moduan baizik. Ideia hori zabaldu zuen Leon Walrasedan esan zuen kooperatiben funtzioa ez dela kapitala ezabatzea, mundua “ez hain kapitalista” egitea baizik.

1973ko urrian, petrolio upelaren prezioa 3 dolarretik 12 dolarretara igo zenean, Reaganek eta Tacherrek ongizate estatu desegin eta ekonomia desarautzeko eraso jo zuten. Kredituan oinarritutako ekonomiak hartu zuen txanda. 70ean hasitako krisiari ohi bezala erantzun zioten langileek: beste esperientzia eta praktikak abiaraziz. Euskal Herrian, langile askok figura juridiko ia ezezagun batekin eutsi zioten lanpostuari eta lanari: lan-sozietate anonimoekin (SAL). Egun, gizarte ekonomia oinarrietako bat dira SAL delakoak.

80ko hamarkadan ultrakontserbadoreek bul-tzaturiko sektore publikoaren atzeraldia hautsak harrotu zituen lokartuta zegoen ekonomia sozialean. Frantzian indarberritu egin zen eta 1980an kooperatibek eta mutuek *Charte de l'économie sociale* idatzi zuten, ekonomia sozialaren printzipioak finkatu zituen dokumentu aitzindaria. Pribatu eta publikoaren artean zegoen hirugarren hanka hobekiago definitzeko beharra azaleratu zen orduan. Nolanahi ere, pixkanaka, ekonomia sozialak hainbat arlotako korrante eta eskolak batu zituen. Areago, azken urteetan ugaritu diren herri ekimeneko proiektu solidarioak –ingurumena, bidezko merkataritza edo tokiko egitasmoei lotuak eta horietako asko Reas sarean bilduak–,



bere baitan hartu ditu, eta ohikoa da Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) izena erabiltzea.

ZER PISU DU GIZARTE EKONOMIAK EUSKAL HERRIAN?

Europar Batasunak aginduta 2007an egindako ikerlan batek ondorioztatu zuen Batasuneko 25 estatuetan 11 milioi lagun ari zirela ekonomia sozialaren arloan, enpleguaren %6,7. Eta gurean? Hainbat erakundek osatutako TESS txostenak – Europako programa baten barruan egina–, Akitania, Pirinio Atlantikoak, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren datuak erkatu eta Euskal Herri osoan ekonomia sozialak duen pisua hobekiago ikusteko parada eskaintzen du.

Espainiaren eta Frantziaren arteko muga administratiboaren ondorioz ezberdintasun ugari dugu Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian elkar-
teak dira establezimendu eta lanpostu gehien sortzen dutenak, gero etorriko lirateke mutuak, fundazioak, gizarteratze zentroak eta enplegurako zentro bereziak. Zerbitzuen sektorean dute indar gehiena horiek guztiek. Hego Euskal Herrian, aldiz, kooperatibak eta lan elkar-
teak dira nagusi

(ikusi grafikoak). Kooperatiben kasuan, Mondragonen pisuak sektore industrialera orekatzen du jardueraren balantza. Lan elkar-
teak Espainian baino ez daude. Hauetan, langileek kapital sozialaren gehiengoa dute eta bazkide batek ezin du akzioen herena baino gehiago eskuratu.

Dena den, ekonomia sozialaren unibertsoa hori baino zabalagoa da. EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatibaren Institutuak (Gezki) honen baitan sartzen ditu, arestian aipatutakoez gain, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, arrantzale kofradiak, merkatutik kanpo aritzen diren herri ekimeneko elkar-
teak eta zenbait finantza erakunde, besteak beste.

Bankuen aurpegi beltzena agerian geratu den honetan, finantzaren arloan dauden alternatibak indartu eta aukera berriak esploratu ditu jendeak, espekulaziorik gabeko fluxuen bila. Esaterako, Fiare banku etikoa aspaldikoa eta aski ezaguna da gurean (ikusi 13. orrialdea). Horrez gain, Kataluniako Bruguera argitaletxeko langileen borrokatik sortu zen Coop57 kreditu kooperatiba Euskal Herrian ezartzeko ahaleginetan dabil; finantza zerbitzuak eskaintzen dizkie ekonomia sozial eta solidarioko proiektuei. Oinarri Elkarrekiko Berme

Elkarteak ere EAEko gizarte ekonomiako enpresa txiki eta ertainen finantza-premici erantzuten die. Gisa bereko kode deontologikoa du Baionan egoitza duen Herrikoa elkarteak, “lantegiak sortu eta azkartzen” laguntzeko helburuz sortua.

Finantza alternatiboaren zaku horretan sar ditzakegu, baita ere, azkenaldian ugaritu diren tokiko monetak. Euskoa dugu gurean egitasmo sendoena, 2.000 lagunek baino gehiagok erabiltzen dute Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Bilbon Ekhi txanpona sortu berri dute eta Aiaraldean Ogerleko izenekoak. Dirua tokiko ekonomian –hezur-haragizko pertsonak egindakoan– erabiltzea dute helburu.

KRISIAREN AURREAN

2013ko hondarretan etorri zen Fagorren porrota. Kooperatibagintza krisian dela haizatu dute medio ugariak. Aitzitik, gizarte ekonomiak enpresa konbentzionalek baino hobekiago egin dio aurre krisiari. TESS txostenak ondorioztatu du Pirinio Atlantikoan enplegua sortzen segitu dutela ekonomia sozialean diharduten jarduerak. Nafarroan eta EAEn berriz lanpostuak galdu dira, baina jokamoldea merkatu osokoa baino hobea izan da.

Adibidez, EAEn kasuan, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak emandako datuen arabera 2007tik hona 7.700 enplegu galdu dira esparru horretan –batez ere lan elkarrean–, orotara ordea 150.000 izan dira azken urteetan galdu diren lanpostuak, proportzioan ia bikoitza.

Lanpostuak mantendu bai, baina nolako lanpostuak? Gizarte ekonomiak orokorrean sentibilitate handiagoa izan du lan baldintzak, berdintasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatzeko orduan. Cepes elkartearen datuei erreparatu, Espainiako Estatuan ekonomia sozialean lan egiten duten 45 urtetik gorako emakumeak, ekonomia konbentzionalean baino %4 gehiago dira, eta zuzendaritza karguetan ere, emakumeen pre-

sentzia %8 altuagoa da. Frantzian, berriz, ekonomia sozial eta solidarioan lan egiten dutenen %66 emakumeak dira. Baina oraindik diferentzia nabarmenak daude gizon eta emakumeen artean. Gai horietan aditua den Antonia Sajardo Valentiako Unibertsitateko irakasleak dioen gisan, gizarte ekonomiako erakundeak ez dira inguruko jardueretik iragazgaitzak.

BISTARATZE FALTA

Iñigo Urkullu lehendakari izendatu zutenean, bere lehen ekitaldia Lantegi Batuen gizarteratze enpresetako batean egin zuen: *Urkullu abandera la 'economia social'* zioen Vocentoren egunkariko azalak hizki larriz. Botere publikoek ofizialki babesa eman izan diete gizarte ekonomiako eragile askori, baina haien ustez ez dituzte behar bezala aintzat hartzen. Desoreka dago beraz: gizarte ekonomiak duen pisua eta indarra ez da islatzen administrazioan.

Bistaratze falta hori, gainera, areagotu egiten da kontuan izanez gero Euskal Herrian gizarte ekonomiak ez duela bera ordezkatzeko duen erakunde bat –proiektu askoren izaera autonomo eta anitzarekin zerikusia du horrek–. Konfekoop, Asle, Anel, Elhabe, Reas, Ucan... Ereku bakoitzak badu bere egitura eta bere interesen arabera jokatzeko du, jakina. Nafarroan Cepes-Navarra sortu zen, ekonomia sozialeko erakundeak biltzen dituena, eta Akitanian Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Erregio Ganberak egiten du funtzio hori. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak jarduerar horretako datu globalak aztertzen dihardu.

Ahots bakarra izatea garrantzitsua da, ez bakarrik administrazioaren aurrean, baita ohiko patronal egindako kritikei erantzuteko edo Europar Batasunean ezbaian dauden kooperatibentzako abantaila fiskalak defendatzeko. Norbaitek azaldu beharko du kooperatiben mozkinen %30 ezin dela banatu; norbaitek esan beharko du multinazionalen zerga gutxiago ordaintzen dutela. ■

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

«Gizarte ekonomiak gertukoago egin ditzake zerbitzu publikoak»

Ekonomian eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua da Enekoitz Etxezarreta Etxarri (Donostia, 1981). EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan irakasten du Gasteizen. Gezki institutuan ikerlari dabil eta UEUko ekonomia saileko kide ere bada.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Ekonomia soziala zabalduz joan den kontzeptua da. Zein ibilbide egin du?

Kooperatiba, elkarte eta mutualitatez gain, azken urteetan bestelako enpresa batzuk barneratu dira. Enpresa horiek jarduteko moduan antzekotasunak dituzte gizarte ekonomiarekin, baina ñabardura

garrantzitsuak ere badaude. Erakunde berri horietako askok gizarte funtzio eztabaidaezina betetzen duten arren, ez lukete kudeaketa demokratikoaren premisa asebeteko, esaterako.

Beraz, gizarte ekonomian denek ez dituzte esparru horretako ezaugarriak betetzen.



“Enpresa kapitalisten gainbeherak legitimitate talka ekar dezake enpresa molde alternatiboen artean”.

Azken urteetan esfortzu handia egin da gizarte ekonomia definitzeko, bai maila akademikoan eta baita legedian ere. Baina ukaezina da logika ezberdineko erakundeak barnebiltzen dituela. Horrek zerikusia du “hirugarren sektorea” deiturikoa ulertzeko moduarekin. Hau da, ekonomia publiko eta kapitalistaz gain badago hirugarren esparru bat: elkarrekikotasunarena. Eskola anglosaxoiak mozkin asmorik gabeko erakundeekin parekatzen du hirugarren sektorea eta eskola frankofonoak kudeaketa demokratikoarekin.

Gizarte ekonomiako korrante guztiek ez dute oso argi beren burua hor ikusten, zergatik?

Nagusiki, auto-identifikazio arazo hau merkatutik kanpo dauden erakundeek dute, mozkin asmorik

gabeko elkarte gisa definitu izan baitira. Hemen, hurbilketa anglosaxoi/frankofonoaren aferak ageri da berriz. Denborak esango du bi nozioetatik zein irtengo den garaile, baina nik uste dut atzean dagoen talka legitimitate arazo bat dela.

Espainiako Estatuan ekonomia sozialaren Legea onartu zen 2011n. Zer berrietasun dakar?

Aurrekari argia suposatu du Europa mailan. Aitzindaria da gizarte ekonomia definitu eta arautzeko orduan, baina tira, orain gutxi Kanadak ere berea onartu du eta Portugalen eta Frantzian ere tramitazioa oso aurreraturik dago. Espainiakoaren kasuan, maila akademikoan jorraturiko ideia nagusiak jasotzen ditu. Adiera ireki baten alde egiten du, enpresa eta errealitate berriak sartzeaz gain – tartean fundazioak– atea zabalik uzten du bestelako erakunde batzuk ere hartzeko.

Esparrua hainbeste zabaldua, ez al da gizarte ekonomiaz dugun ideia desitxuratuko?

Arrisku nagusia desnaturalizazio batean jaustea litzateke, gizarte helburu bat duen edozein enpresa aintzat hartzea; horrek funtsezko ezaugarriak (demokrazia, autokudeaketa, elkartasuna...) lausotuko lituzke. Baina aukera bat ere bada, orain arte gehiegi landu ez diren aliantzak osatu daitezke.

Zer eragin izan du sektore publikoaren azken urteetako atzerakadak ekonomia sozialean?

Galdera horixe hartu nuen hipotesi nagusitzat doktoretza tesian. Ongizate estatuaren krisiak ba al du zerikusirik gizarte ekonomiaren kontzeptuak izan duen hedapenean? Harreman hau ez da berria, ordea. Gizarte ekonomiaren ezaugarrietako bat izan da merkatuak eta estatuak ase ez dituzten beharrei erantzutea. Adibidez, 80ko hamarkadan, lan elkarteak erabili ziren enpresa kapitalistak hondotik ateratzeko egitura moduan. Azken urteetako gizarteratze enpresak eta enplegurako zentro bereziak, merkatuak bazterturiko kolektiboak gizarteratze politikaren publikoen ezintasunaren ondorio

dira. Egia da bestelako prozesuak ere gertatu direla; gizarte segurantza publikoaren hedapenak mutualitate askoren desagertzea ekarri zuen.

Dena den, gauza bat da gizarte ekonomiak ongizate estatuaren atzerakadan zein paper jokatzeko duen aztertzea eta bestea zein paper jokatu beharko lukeen baloratzea. Azkeneko honek eztabaida ugari sortu ditu.

Eta zer paper jokatu beharko luke?

Intuitzen dut gizarte ekonomiak abantaila ugari ekar ditzakeela, zerbitzu publikoak parte hartzaileagoak, gertukoagoak eta demokratikoagoak egingo bailituzke. Hala ere, diskurtso hori erabili izan da ez zerbitzu publikoak hobetzeko baizik eta erantzukizun publikotik askatzeko. Pribatizazio sozial gisa ezagutu izan dira prozesu horiek. Ingalaterran oso agerikoak dira, laboralismoak proposatutako “hirugarren bidea” delako hor dago. Tuntu handiz jorratu beharreko eztabaida da, zerbitzu publikoak herritarrei hurbiltzeko ez baitu esan nahi erakunde publikoen bermerik gabe eta enpresa pribatuen eskuetan utzi behar direnik.

Maiz, gizarte ekonomiarekin batera azaltzen zaigu ekonomia solidarioa. Zein da bien arteko diferentzia?

Ekonomia solidarioa, berria, mamitsua eta oso kontuan hartzekoa da. Frantzia esaterako, bi adierak –solidarioa eta soziala– etengabeko elkarriketan daude eta batzeko ahaleginak egin dituzte. Askok laburbilduko dut: ekonomia solidarioak gizarte ekonomiaren zenbait kontraesan mahai gaineratu ditu. Gizarte ekonomiako eragile tradizionalak euren esparruko logika hegemonikoaren mendeko bilakatu direla dio: kooperatibak merkatu-logikaren mendeko eta mutualitate eta lan elkarrekin estatu-logikaren mendeko. Hori, ekonomia solidarioa eragileen irudikoz hausnarketa kritikoren baten faltari zor zaio. Isomorfismo horri aurre egiteko ezinbestekotzat dute berrarmatze ideologiko bat. Alternatiba ekonomiko berri baten oinarriak

proposatu dituzte eta horren aldeko lan politikoan engeiatu dira.

Herri mugimenduetako ideologiak (ekologismoa, feminismoa...) nola txertatu dira gizarte ekonomian?

Ba, hortxe dago ekonomia solidarioak gizarte ekonomian leporatzen dion ahulguneetako bat, jendartearen oinarritik aldentu izana, merkatu globalen jardutearen ondorioz. Gizarte ekonomiaren sistemaren alternatiba izateko ezaugarriak dituela sinesten badugu, alternatiba horiek eraikitzen ari diren eragileekin harremana izan behar luke. Tartean daude mugimendu feminista edo ekologista. Ekonomia solidarioan mugimendu horiek motibazio iturri garrantzitsua dira. Horregatik diot ekonomia solidarioa bidelagun egokia izan daitekeela, gizarte ekonomia itzuli dadin ahaztu xamar duen jendartearekiko konpromisora.

Zure ustez, gizarte ekonomiak nora joko du kontzeptualki? Eta errealitatean, zer bide egingo du eredu kapitalistaren oinarriak zalantzan jarri direnean?

Kontzeptualki presioa hainbat aldetatik jasoko duela iruditzen zait, bereziki eredu kapitalistaren krisiagatik. Enpresa kapitalisten gainbeherak legitimitate talka ekar dezake enpresa molde alternatiboen artean. Askok dira, azkenaldian, iraunkortasunaren bidetik, kalitatearenetik edo gizarte erantzukizunarenetik, enpresa gizatiarragoaren itxura hartu nahi dutenak. “Enpresa soziala” izena ere zabaltzen ari da. Susmoa dut hori guztia enpresen gizarte-legitimazio faltatik datorrela.

Gizarte ekonomiak bere indar guneetan sakondu behar du. Eskarmentua eta sinesgarritasuna baduela esango nuke, egungo krisiak nahiko erasan badu ere. Arrasateko kooperatiben esparruan saio oso interesgarriak egiten ari dira gizarte ekonomia barruko eztabaidak berrindartzeko. Autoeraketa, elkartasuna, demokrazia, komunitatearekiko lotura... Bide horretatik baino ez du lortuko sinesgarri izaten jarraitzea. ■

Gureak Taldea

Dibertsifikazioarekin, lanpostuak

“Guri negozio batean esaten badigute %20ko etekina lortuko dugula, baina lanposturik ez, hor ez gara sartuko. Alderantziz, inbertsio txikiarekin lanpostu asko sortuko dugula ikusten badugu, ba orduan bai”. Horrela deskribatu du euren jarduteko filosofia Jon Ander Arzallus Galparsorok, Gureak Taldeko Berrikuntza Zuzendariak eta Komunikazio Arduradunak.

Gureak desgaitasunak dituzten pertsonentzako eta merkatuan lana aurkitzeko zailtasunak dituztenentzako Gipuzkoako gizarteratze enpresa da. 1975ean sortu zen, aurretik Bergaran, Donostian eta beste hainbat tokitako tailer txikitant izandako esperientziek eta Atzegi desgaitasun intelektualak dituzten pertsonen familien elkarrekin bultzatuta.

18 enpresak eta 2 fundaziok osatzen dute taldea eta denera 4.302 lagun aritzen dira, tailer industrialetan eta zerbitzu-enpresetan, batez ere. Taldeko enpresak S.A eta S.L.ak dira, ohiko enpresen eredu bera dute, baina kategoria berezi batekin: Enplegurako Zentro Bereziak dira. Legediak araututako bide bati esker, desgaitasunak dituzten pertsonentzako lanpostuak mantentzeagatik diru-laguntzak jasotzen dute; lanpostuen %70 baino gehiago desgaitasuna duten pertsonen bete behar dute. “Gu juridikoki enpresa normalak bagara ere, estatutuetan daukagun baldintzetako bat da etekinak ez direla banatzen, erreserbatara joan eta hurrengo urtean inbertitzeko erabiltzen dira. Horrek ekarri du krisiaren aurrean beste enpresa batzuen zorpetzerik ez izatea. Etxeko ekonomia batek bezala funtzionatzen dugu, aurreztu eta gero inbertitu, eta horrek finantzetan agoantatzeko aukera eman digu”, dio Arzallusek.

Enpresa askok erregulazio espedienteak eta kaleratzeak egin dituztenean, Gureak-en enplegua mantendu dute. 2010ean ikusi zuten krisia luzerako zetorrela. Hala, enpleguari eusteko neurriak hartu zituzten eta 2012an etekinak asko murriztu zituzten arren, lantaldeak bere horretan segitzea lortu zuten. 2013an 46 lagun gehiagori eman diote lana eta beste 120 birkolokatu egin dituzte.

Dena dela, merkatuaren exijentzia igo egin da eta Gureak-ek ere nozitu du hori. “Bezeroak ez digu erosten desgaitasuna dutenekin lan egiten dugulako, merkatuak betiko gakoetan funtzionatzen du: prezioa eta kalitatea”. Arzallusen hitzetan Gureak-era lan bila doan jendearen perfila kualifikazio gutxikoa da eta horrek sektore zehatz batzuetara mugatzen ditu, lorezaintza eta garbiketara kasu: “Geroz eta zailago egiten zaigu zailtasun handiak dituztenei aukera ematea”.

Zein da irtenbidea? “Dibertsifikazio bila gabiltza gau eta egun. Dibertsifikazioak bi aurpegi ditu: laguntzen digu krisiari aurre egiten, eta bestalde, horren bidez aukera desberdin asko izaten ditugu pertsona bakoitzari gehien egokitzeko zaion lanpostuak eskaintzeko”. Industria sektorean, zenbait teknologia erabilia, espezializazio handia lortu dute eta horri esker zerbitzu integralak eskaintzeko kapaz dira: I+G, logistika, erosketak... “Jadanik ez gara azpikontrata bat”, dio Berrikuntza Zuzendariak. Horrela lortu dute zailtasun handiak dituztenentzako lanari eustea.

EKARPENA ONGIZATEAN

2013an Gureak-ek 104 milioi euroko salmentak izan zituen eta 2,6 milioi euroko irabazia. Gipuz-

koako ekonomiari egiten dion ekarpena, beraz, ez da txantxetako. Euren kalkuluen arabera, administrazio publikotik jasotzen duten euro bakoitze-ko 2,56 euro sortzen dituzte, soldatak, zergak eta kantitate guztiak kontuan hartuta. Zailtasunak dituzten pertsonak okupaturik edukita ere dirua aurrezten du administrazioak, segur aski zerbitzu sozialen erabiltzaile lirarteke bestela.

Baina sortutako ongizatearen bidez ere neurtu daiteke ekarpen hori: “Pertsona batek behar duena lana da. Lana duen momentutik bere bizitzari e-dukita bat ematen dio, ohiturak eta giza erlazioak sortzen dira, lanpostua bihurtzen da euren bizitzako bizkarrezur. Gaixotasun mentalak dituzten pertsonak momentu honetan 700 dira Gureak-en. Halako pertsona batek kontratua gal-tzen badu, duen arriskurik handiena etxean gera-tzea da”. Familiei ere zeharka ongizatea ekartzen die desgaitasuna duen pertsonak lan egin ahal iza-teak, ez delako hain menpeko eta egoera beste lasaitasun batekin hartzen laguntzen delako.

Asko dira, bestalde, Gureak-en lan egin ondoti-k enpresa “normaletara” jauzi egin duten lagu-nak. Taldean unitate berezi bat ari da arlo hori lan-tzen duela 15 urtez geroztik. Enpresaz enpresa aholkuak ematen dituzte, legediaren onurak esplika-tu, prestakuntza eta laguntzailea eskaini... Dena den, gaur egungo egoera ekonomikoan halako pausoa ematea ez dela erraza onartu du Arzallusek eta lan asko udako ordezkapenak egite-ko omen dira. Momentu honetan 200 lagun dira Gureak-en ekimenez Gipuzkoako enpresetan lan-postu egonkorra dutenak. Zenbait kalkuluren ara-bera, desgaitasuna duen biztanleriaren %60 ez da aktiboa, etxean geratzen da, eta lanik aurkitzen ez dutenen portzentajea 12 puntu altuagoa da, batuz bestekoarekin konparatuta. Hortaz, bistan da oraindik asko dagoela hobetzeko.

Desgaitasuna dutenen garapena lantzeko hainbat proiektu dituzte martxan. Ekonomia sozialeko beste antolaketa eredu batzuekin probatzeko asmotan ere badabilta: “Negozio ideia



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Industria sektoreko teknologia eta espezializazioari esker lanpostuak mantendu ditu Gureak Taldeak.

bat gure enpresan lantzerik ez badago, saiatu gara desgaitasunak dituztenen artean kooperati-ba txikiak sortzen. Orain arte apenas izan dugu emaitzarik, baina auto-enpleguko aktibitateak bai sustatu ditugu”. Dena den, Gureak moduko aterpe zabaletik irtetea kostatu egiten zaio askori, Arzallusen esanetan.

Fakturazio milioiduna eta ehunka langileko enpresen taldea den arren, Gureak-ek PYME baten antza handiagoa du: “Egitura oso plano da, guk ez daukagu multinazional batek duen hierarkia edo eskailerarik”. Horrek, Arzallusen ustez, baditu alde onak eta txarrak: erabakiak azkar hartzeko aukera ematen baitu, baina berri-kuntzarako edo proiektu berriak martxan jartze-ko jende gutxi daude: “Estruktura motzarekin eta presio dezenterekin egiten dugu lan. Baina hori konpentsatu egiten da, soldatez aparte, Gureak-en lan egiten duten profesionalek enpre-saren misioa barruan daramatelako eta horrek plus bat ematen du”. ■

Heroslam SAL

Gardentasunaren abantailak

1942an martxan jarria, Abanto-Zierbenan dagoen Heroslam enpresak Gizarte Ekonomiaren Txemi Cantera saria jaso zuen duela bi urte, egindako ibilbideagatik. 1972an SAL bihurtu zen, Euskal Herrian lehena eta Espainiako Estatuan bigarrena –Valentziako autobus konpainiaren atzetik–. Egun, aktiboan urte gehien daraman SALa da.

Alberto Gabikagoxeaskoa Heroslameko gerenteari langile beteranoek kontatu diotenez, garai haietan bi jardura zituen enpresak: ebaketa-erremintak eta laminazio eta hariztatze-erremintak. 1983an azken honi heldu zioten buru-belarri. SAL bihurtu zenean ez zegoen legerik, ezta Asle moduko elkarterik, baina administrazio publikoen alde tik erraztasun handiak izan zituzten pauso hori emateko. Krisi garaia zen eta lantegiak ez ixteko alternatiba bihurtu ziren lan elkarreak.

48 langiletik 37 bazkideak dira. Horri abantaila ugari ikusten dizkio Gabikagoxeaskoak: “Inplikazioa dago, motibazio estra gauzak ondo egiteko”. Gerentea ez da bazkide, enpresa daraman kanpoko profesionala baizik. Gabikagoxeaskoa duela hiru urte iritsi zen Heroslamera; beste enpresa askotan esperientziaduna da, baina inon ez du ikusi halako parte-hartze eta gardentasunik: “Erabaki inportanteak eurekin adostu behar ditut. Adibidez, askotan egon da tentazioa deslokalizatzeko, Turkian-edo lantegi bat irekitzeko... Nik diotsut hori hemen ez duzula sekulan lortuko”. Bestalde, gardentasunak sindikatuekin lan hitzarmenak negoziatzea errazten du, bere esanetan.

Heroslamek ongi egin dio aurre krisiari, baina ez SAL bat izategatik, gerentearen hitzetan, baizik eta erabat internazionalizaturiko enpresa delako. Soldatarik ez dute jaitsi behar izan, baina modera-

HERSOLAM



Heroslam laminazio-erreminta enpresa, Espainiako Estatuan aktiboan urte gehien daraman SALa da.

zioa bai egon da. Zer eragin dauka SAL bat izateak nazioartera esportatzeko? “Bezeroak lehenengo momentuan behintzat ez du baloratu ere egiten, produktua, zerbitzua eta prezioa begiratzen ditu”. Ostera, konfiantza giroan, bezeroak estimatzen du langileen prestutasuna urgentziei erantzuteko: “Bisitan etorri eta ikusten dute kontseilu errektoreko presidentea tailerreko makinan lanean; harrituta geratzen dira eta oso positibotzat dute”.

SAL izateak belaunaldien arteko erreleboa ere sustatzen duela dio Gabikagoxeaskoak: “Hemen kontratu soziala deitzen dena daukagu eta akzioekin ezin da espekulatu”. Jubilatutako bazkidearen akzioak prezio finkean erostea eskaintzen diote bazkide ez den langileari. Hala, erreleboa ziurtatzen dute. Dena den, Heroslameko gerentearen esanetan, aldi berean langile eta bazkide izateak sortzen ditu arazo batzuk: “Langile bezala dauden eskubideak eta bazkide bezala dauden betebeharrak bereizi egin behar dira eta horretarako pedagogia asko egin behar da”. ■

Fiare

Finantzak eta etika, adiskide

Eskrupulorik gabeko bankuen boterea nolakoa den probatu dugun honetan, Fiare banku etikoaren proiektuak dozena erditik gora urte darama ekonomia pertsonen zerbitzura jarri nahian. Gardentasuna, irabazi asmorik gabekoa izatea eta mozkinak proiektuan berrinbertitzea, horiek dira Peru Sasia Fiareko presidentek nabarmendu dituen ezaugarrietako batzuk.

Fiare 2000. urtean sortu zen Bilbon, eta azkar zabaldu zen Euskal Herrira eta Espainiako Estatu-ko beste hainbat tokitara. Egun 5.000 bazkide ditu pertsona eta erakundeen artean –horietatik 1.800 pertsona eta 200 erakunde Euskal Herrikoak dira– eta 5 milioi euro inguruko kapital soziala du.

Sortu zenean, sustatzaileek Europako beste eredu batzuei jarri zieten arreta, bereziki Italiako Banco Popolare izenekoari. Padovan egoitza duen banku kooperatiboa Italia osoan dago zabaldua eta printzipio etikoak ditu oinarri. Fiarek Banco Popolareren agente moduan egin du lan urte hauetan guztietan. Datorren irailetik aurrera baina, kreditu kooperatiba bilakatuko da: “Polita da, 10 urtez elkarrekin bidea egin eta gero, integrazio prozesu bat hasi eta Europa mailako proiektu kooperatiboa jarri dugu martxan”, dio Sasiak. Italiako Bankuaren eta Espainiako Bankuaren baimenak badituzte jada.

Hala, Fiarek kreditu kooperatibek eskaintzen dituzten zerbitzu berak izango ditu (kontu korrontek, txartelak...), beste edozein finantza erakunderen egitura eta ikuskapen berak izango ditu beraz. Sasiaren esanetan, halako ekimen batek balio sozial handiko proiektuak kredituz

laguntzeko helburua du; 35 milioi euroko finantzazioa lortu dute eta 200 proiektu lagundu dituzte, nagusiki elikadura burujabetza, gizarteratzea eta bidezko merkataritzaren arlokoak. Baina horrez gain, herritarrak arduratsua izango den finantza entitate baten bila dabilzala dio Fiareko presidentek: “Guretzat, produktuak eta zerbitzuak eskaintzea oso garrantzitsua da herritar horiek erakartzeko”.

Ez ote da, beste aurrezki kutxa batzuei gertatu bezala, merkatuaren atzaparretan eroriko? “Finantza-sistema ekonomia errealetik aldendu da, espekulazioan eta deribatuetan sartu da. Hori Fiarek ez du egingo, ez orain eta ez gero. Zergatik? Ez dugulako presiorik sentitzen hazteko eta etekinak maximizatzeke”. Sasiaren ustez aurrezki kutxa eta kreditu kooperatiba askok euren identitatea galdu dute modu zehatz batez hazi direlako; horrek zailtasunak ekarri dizkie lurraldearekiko gertutasuna mantentzeko. Ez ei da

Fiareren kasua izango: “Gure asoziazio-diagraman oinarritzko unitate bat dago: bazkideen talde lokalak. Haien bidez tokiko komunitatetik oso gertu gaude”. Euskal Herrian halako bost talde daude, bi Bilbon, eta bana Gasteizen, Donostian eta Iruñean.

“Mantso eta lasaitasunez garatzen ari den proiektua da –dio Sasiak–, egitura asoziatiboa asko zaintzen ari gara eta ez dugu lamien kanteak sorgintzerik nahi. Askok esaten digute herritarren haserre aprobe txatu behar dugula. Azti ibili behar da inbertitzaile handiekin eta burtsara ateratzeko kontu horiekin, askotan, halako proiektuen hilobia izan baita”. ■



Ampo S.Coop

Gertutasuna oinarri

Oinarrizko beharrei erantzuteko. Halaxe sortu zuten 1964an hainbat lagunek Idiazabalgo Ampo kooperatiba. Altzairu-galdategi hark bere bidea egin zuen eta egun munduko petrolio eta gas enpresa garrantzitsuenentzako balbula bereziak egiten dituzte Ampon. Jon Agirre kooperatibako presidentearen iritziz duela mende erdi auzolana, kolaborazioa eta halako hitzak ez zituzten ezagutzen, baina praktikan jarri bai: “Orain 50 urte kreatibo izan ziren horien seme-alabak gara gu; eredu horretan artikulatu diren proiektuekin atera gara aurrera, ikastoletan nahiz lantegietan”.

Amporen talaiatik begiratuta, mentalitatez jendartea asko aldatu dela uste du Agirrek eta gaur egun “beste ertzean” gaudela dio: “Jendea teknikoki oso prestatuta dago, baina behar orokorretara iristeko entrenamendu faltarekin, auzolana, lanboluntarioa eta halakoak galdu dira, hori edozein herriko elkarte eta kirol taldetan ere ikus daiteke”.

Ampo, azkeneko hamar urtetan 350 langile izatetik 500 langiletik gora izatera igaro da. 2012an eta 2013an inoizko fakturazio handiena lortu du eta inbertsio milioioiduna egin du Idiazabalgo lantegian. Arrakastaren zergatia ulertzeko, kooperatibagintzaren zentzu zabalenera jo liteke. Kooperatiba ez baita tailerrean hasi eta bukatzen, azpiegiturak eta harreman sareak ere beharrezkoak dira. Agirrerren ustez Gipuzkoako Goierri eskualdea industrialki hain garatua egotea ez da kasualitatea. Goierri eskolak, esaterako, 50 urte bete ditu, Ampok bezalaxe, eta handik zientoka profesional irten dira: “Tantaz tanta, jakintza bat duen langileria lortu da eta hartara eskualde jakituna egin da” dio Agirrek.

Kooperatiben arteko harremana ere aski garrantzitsua da eta Ampok badu ibilbide bat egina

arlotan. 2000. urtean Mondragonek korporazioan sartzeko gonbidapena egin zion Ampori. Halaxe egin zuen. Hurrengo urteetan Mondragon barruko antolaketa aldatu egin zen eta sektoreka banandu ziren multzoak. Zenbait enpresarekin, ordea, zaila zen jarduera motaren arabera sailkapena egitea eta antolakuntza modua hartu zuten kon-tuan multzoa egiteko. Hala, Irizar autobusgileak, Urola makina-erreminta fabrikak eta Ampok berak, Goikide izeneko dibisioa osatu zuten.

Enpresa horiek, lan harremanen kudeaketa ereduak bereizten ziren. Ikuspuntu ezberdina zuten Mondragonek zeraman politikarekiko eta hori aldatzen saiatu ziren. Azkenean, 2008an talde-tik atera ziren. Koldo Saratxagak gidatzen duen Ner Group (*Nuevo Estilo de Relaciones*) barruan dago orain Ampo, pertsonengan eta gertutasunean oinarritutako harreman ereduari jarraiki: “Ezberdintasuna da, antolakuntza oso hierarkiko eta piramidala baduzu, horrek kudeaketa geldotu egiten duela. Guk bezeroaren beharretara egokitu nahi dugu eta horretarako malgutasuna daukagu. Bezeroa gertutik bizitzeko modu bat da”, dio Agirrek. Bestalde, Ampoko zuzendariaren esanetan informazioa partekatzeko aukera gehiago dute: “Txinan negozio bat ikusten badut talde bereko edo eskualdeko beste enpresa batentzat, edo ingeniari-tza eskolarentzat akaso, hori jakinaraztea da kontua, aberastasun eta harreman hori konpartitzea”.

Gertutasuna bai, harremanari dagokionez, baina Ampo urrutira joan da munduan barrena. Horrek, eskualdetik deserrotzeko arriskurik ez ote du berekin? Agirrek ezetz dio irmoki, alderantziz, indartu egiten duela bertakoa. Indiako Coimbatore hirian duten plantaren adibidea jarri du. Gas zentral batek dituen balbulen %25 baino ez dira segur-



Goierrri eskualdea industrialki hain garatua egotea ez da kasualitatea Jon Agirre Ampoko presidentearentzat (irudian, ezkerretara), kooperatibentzako sortutako azpiegitura eta harreman sareek zerikusi handia izan dute.

tasun berezikoak eta balio erantsi handia dutenak, gainerakoak arruntak dira. Bada, bezeroari bi produktuak eskaini ezean, Idiazabalgo lana galtzeko arriskua ikusi zuten, eta horregatik jo zuten India-
ra, beste mota bateko balbulak egiteko: “Hori garbi izatea komeni da, jendeak pentsa dezake aberastasuna lortzeko edozein tokira joateko kapaz gara, baina hemengoa indartzeko egin dugu”.

DIRUAZ GAIN, DENBORA ETA ARDURA

Sortutako fluxu ekonomikoaz eta lanpostuez aparte –zuzeneko lanpostu bakoitzeko beste bi lanpostu sortzen ditu Ampok zeharka, 1.000 inguru–, sektoreko munduko eragile nagusiekin egindako harremana Gipuzkoarentzat ondare handia dela uste du Agirrek. Teknologiaren alorreko elitean daudenen beharrak zein diren helaraztea inportantetzat du goierritarrak.

Emaitzen %10 gizarteko hainbat ekimen babesteko erabiltzen du kooperatibak. GKE eta

elikadura bankuekin kolaboratzen dute, esaterako, baita kultur ekitaldiak edota kirola babestu ere, elitekoa –Ordiziako errugbi taldea patrozinatzen dute– nahiz oinarrizkoa izan. Dena den, proiektuak diruz laguntzeko orduan Ner Groupen badiutze irizpide zehatz batzuk. Eskaera egiten duenak, proiektu hori ekonomikoki sostengatzeaz gain, azaldu behar du enpresak zer gehiagotan lagundu dezakeen. Hala, diruaz gain, denbora eta ardura ere jartzen ditu enpresak, izan elikadura bankurako elikagaiak eramateko, baratzetako irakasle lanak egiteko edota genero-biolentzia jasan duten emakumeentzako tailer batean aritzeko: “Langileak aktiboki hartu behar du parte, bestela batzuetan badirudi dirua ematea kontzientzia garbitzeko modu bat dela”.

50 urte egin ditu Ampok eta bere inguruko guztiarekin ospatuko du urte osoan. Besteak beste, enpresaren terrenoetan dagoen dorretxea –eraikin historikotzat katalogaturik dago– berritzen ari dira, sorkuntzarako espazio gisa bideratzeko. ■

Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia

